

# BERRIGARA

2. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1997, urtarrilak 10

**Herriko merkatal  
giroari buruz  
berriketan**

**Pili Azkarate**



# ION

Urarte, 10 BERGARA • Telefonoak: 76 47 49 / 76 47 73

## AUTOAK

- **Hasierako prezio bereziak.**
- **Aukera zabala bigarren eskuko kotxeetan.**
- **Garantia osoa.**



**ZATOZ Berlingo  
BERRIA IKUSTERA!!**





## **VENTANAS SAN MIGUEL**

*Ventanas San Miguelekin...  
denean irabaziko duzu.*


*Erosotasunean irabaziko duzu.*

*Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.*

*Isolamenduan irabaziko duzu.*

*Konfortean irabaziko duzu.*

**Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21**



*Etonki guzera!  
Denean irabaziko duzu.*

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

***Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura***

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18**



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
© 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

## Zuzendaria:

Eneko Azkarate

## Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezar

## Maketazioa:

Eneko Azkarate

Meki Iturbe

## Publizitatea:

Alex Azkarate

## Harpidetzak:

Gorka Elortza

## Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Mampi Laskurain

Alex Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

## Komikiak:

Sitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Meki Azkarate

## Banaketa:

Yantxangorri taldea

## Tirada:

200 ale.

## Inprimategia:

Beritu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Lege gordailua:

SS 50/91

## ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## EBA ALBERDI

## Jarduneko dinamizatzailea

- Nolako erantzuna jaso duzue Amodiozko Gutunen Lehiaketarekin?

- Urtarrilaren 17an bukatuko da kartak jasotzeko epea eta espero dugu iazko moduko erantzuna jasotzea. Dagoeneko karta dexente heldu dira baina oraindik ez gara iritsi joan zen urteko kopurura. Guztira, 176 partaide izan ziren iaz. Ea horrelako partaidetza lortzen dugun aurren...

- Nahiko kontsolidatuta dago lehiaketa...

- Bai, komunikabideetan oihartzun dexente izaten du eta oinarriak kaleratzen ditugunetik hasten dira euren interesa azaltzen. Euskal Herri mailan izen propioa duen lehiaketa da amodiozko gutunena eta emaitzak



ere interes handiz jarraitzen dira medio ezberdinetan.

- Zeintzuk izango dira epaimahaian aurren?

- Arantzazu Loidi, Laura Mintegi, Miel Anjel Elustondo eta Jerardo Markuletak osatuko dute aurtengo epaimahaia eta sari banaketa, ohizkoa denez, San Balentin eguna egingo dugu.

**“Amodiozko gutunen lehiaketan iazko moduko partaidetza izatea espero dugu”**

## I T U R R I O N E T I K

## Gorlako XXIII. Txirrindulari Igoera martxoaren 9an jokatu da

Aurtengo Gorlako Txirrindulari Igoera datorren martxoaren 9an jokatu da. Bergarako Txirrindulari Elkarte eta Udaleko Kultur Zerbitzua hasi dira dagoeneko antolaketa lanetan eta beraz afizionatuen mailako txirrindulari onenek zita garrantzitsua izango dute Gorlan martxoaren hasieran. Oraingoz ez da nobedade aipagarririk izango eta afizionatu zein txirrindulari beteranoek ohizko ibilbidea bete beharko dute. Afizionatu mailan eronka nagusia Irustak 1991tik daukan errekorra (21'09") gaitzetea izango da. Gorlan irabazle izan direnen artean Gorospe (1981), Cabestany (82) edo Moller (95) daude.

E S A N  
D U T E

“Marrazki artistikoa egiten dut, hau da, teknikoa eta geometrikoa ez dena. Ildo artistiko horretatik jarraituta marrazki expresionista edo minimalista egiten dut. Hau egitera heldu arte, beste guztia probatu izan dut eta orain ikerketa margolaritza deritzona egitea gustatzen zait. Esaten dute margolaritzan dena asmatuta eta margotuta dagoela, baina nik uste dut norbera dela aurkitu behar duena. Materialetan, formetan..., ikertu behar da”

**JUAN JOSE ALTUNA**  
Margolaria  
ARRASATE PRESS

“Inspirazioa edo lana? Ez dakit, inspirazioa momentu on bat izan daiteke, edo kontzentratuago egotea... Baina azken batean inspirazioak lanean harrapatu behar zaitu. Bestela nekeza izango da inspirazio horri etekina ateratzea”

**JON ANDONI URISABEL**  
Margolaria  
EUSKADI IRRATIA





### EN EL NOMBRE DEL HIJO

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).



### NAPOLEON

Ei perrito aventurero

Domeka: 11:30 (Matinala).



### LOS BAULES DEL RETORNO

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

## Zinea

▼▼ **Terry George** zuzendaria eta **Jim Sheridan** produktorea, *En el nombre del hijo* filmearen sortzaileek Irlandako egoerari buruzko filme berri bat egingo dute. 1980an Bobby Sandsek (**John Lynch** aktorea) gose greba egin zuen IRAko beste 20 lagunekin batera. Gose greba haretan parte hartu zutenen familiarren kasuan zentratzen da filmea.

▼▼ **Mario Andreacchio** zuzendariaren filme honetan Napoleon txakurra dugu benetako protagonista nagusia. Napoleon abenturazalea dugu eta egoera arrisksuenei aurre egiteko ere gauza da. Globo batera igo eta Australiako desertura abiatuko da bertan dituen lagunak/animaliak bisitatzeko. Haurrei zuzendua eta efektu berezi aipagarriak dituen filmea.

▼▼ **Maria Mirok** zuzendutako filme honetan **Silvia Munt**, **Paulina Galvez**, **Muley Ahmed Melainin** edo **Miguel Rivero** dira aktore lanetan. Saharaiuen kanpamentutan *Nayat* izeneko neskatxa bizi da eta bertara Parisen ikasten ari den *Marian* gaztea itzuliko da. Baina orduko gertakizun historikoez exodo berri batera bultzatuko dute euren herria...

## Deiak

▼ **Fernando Arenaza** pintore bergararraren margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **EAJ-PNVren batzarra.** Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak dei egiten die alderdikideei datorren ostiralean, hilak 17, Batzokian egingo den batzarrera joateko. Batzarra arratsaldeko Setarako dago iragarrita.

▼ **Pol-Polen mendi irteera.** Pol-Pol Mendizale Taldeak Toloñoko mendi irteera antolatu du 14 urtetik gorako gazteentzat, hilaren 19rako. Interesa dutenak Pol-Poleko bulegoetatik pasa daitezke astelehenetik ostegunera iluntze partean.

## Ogia

▼ **Domeka 12:** Ogizun.

## FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 10:** Camacho.

▼ **Zapatua 11:** Puy.

▼ **Domeka 12:** Puy.

▼ **Astelehena 13:** Guallar.

▼ **Martitzena 14:** Estella.

▼ **Eguaztena 15:** Mozos.

▼ **Eguena 16:** Camacho.

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkalea, 29 BERGARA



ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



# Eskultura erakusketa

## Herriko eskultoreen lanak Kultur Etxean ikusgai

Domekara arte zabalik izango da Kultur Etxeko erakustokian Bergarako eskultoreen erakusketa. Urtero bezala, margolarien erakusketaren ondoren, eskultoreen txanda etortzen da. Oraingo erakusketa honetan zazpi eskultoreen lanak ikusi ahal izango dira: Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Xabier Diaz de Zerio, Nerea Madariaga, Maria Jesus Manzisidor, Jose Jabier Ugalde eta Ascensio Esnaola.

Maria Jesus Manzisidor Simon Arrieta zeramika taldean ari da eta urtero eskultoreen erakusketan parte hartzeko ohitura dauka. Bere hitzetan, "beti gertatzen dugu zerbait erakusketa honetarako. Udaletik deitzen gaituzte eta egia esan hauxe da biltzeko daukagun aukera bakarra, urtean zehar bakoitza bere kontura ibiltzen delako. Nabiz eta pintoreen lana gurea baino ezagunagoa izan, gu ere Beart artisten elkartean ari gara eta gure lana jendeari ezagutzera emateko egiten dugu erakusketa. Pintoreen ondoan, eskultoreok euren anai pobreak ematen dugu".

Astebukaeran 12etatik



Domekara arte izango da zabalik herriko eskultoreek prestatutako erakusketa.

ordubietara eta betatik setara izango da zabalik eskultoreen erakusketa. Ondoren, lanean jarraituko dute eta Bedelkarrekin batera Beartek herriko eskaparateetan antolatzen duen erakusketan ere euren lanak jendeaurrean erakutsiko dituzte.

### Moser-en bizikletak

Bestalde, datorren egue-netik eta urtarrilaren 29ra arte Francesco Moser txi-

**Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Xabier Diaz de Zerio, Nerea Madariaga, Maria Jesus Manzisidor, Jose Jabier Ugalde eta Ascensio Esnaolaren lanak ikus daitezke**

rindulari italiarrak 1984an eta 1994an munduko orduko rekorrak gainditzeko egindako saioetan erabili zituen bizikletak ikusgai egongo dira Kultur Etxean.

Bestalde azken Olinpiadetan erabilitako bizikletaren modelo bat ekarriko du Kultur Etxeko erakustokira Inigo Igartua bergararrak.

Erakusketa osatzeko txirrindularitzari buruzko argazkiak ere jarriko dira ikusgai.

**Usoa Pub**

☎ 76 38 57  
Irala, 1

**LASA**  
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



## Marra Zuzenaren Kofradia

Kontutan hartuz: bi punturen arteko tar-terik txikiena marra zuzena dela; bihurtunak, itzelak izanda ere, arrakutsuak direla; Aita Santuak zuzenak izateko eta ez okertzeko esaten duela eta alperrik galtzeko astirik ez daukagula.

Marra zuzenak behar duen ospe eta ohorea izan dezan ordua iritsi dela uste dugu. Horretarako hiritar talde batek (profesional liberal, enpresagizon, injenieri, administrazio publikotako funtzionari...) zera sortzea erabaki dugu: Marra Zuzenaren Kofradia.

Gure helburua bihurtunaren, itzulbidearen, osteraren eta bueltaren aurrean marra zuzena sustatzea da gizarteko arlo guztietan eta bereziki garraiobideetan. Imaginazioa oso ondo dago ipuinetarako baina gure garapen eta muga gabeko kontsumoko gizartearen etorkizuna oso serio hartu beharreko kontua da, eta marra zuzena da horren bermea. Zerbaitegatik doaz injenieriak, jende serioa berau, beti zuzenera, azken finean helburuak zuzena justifikatzen duela, pasatzen den lekutik pasatzen dela. Gure lehen ekinbidea Urbina-Maltzaga autopistaren alde indar guztiz jokatzeko da, abiadura haundiko euskal H eta Yarekin batera, eta denak ere ahalik eta zuzenenak izan daitezkeen eskatzea, minutu bat bera ere ez galtzeko.

Ondoren gure ahaleginak beste proiektu haundi batzuren inguruan bilduko dira:

Udalerrri bakoitzak bere aireportua izan dezala (nazioartekoa noski), bizilagunek Sondika edo Forondara joan beharrik izan ez dezaten.

Aireportu guztiak autopista eta abiadura haundiko trenbide sare zabalekin elkartuak egon daitezela, ahalik eta zuzenenak.

Gure hirietako auzo bakoitza erdigunearekin hiru edo lau karrileko autopisten bitartez lotuak egon daitezela.

Hirietako oinezkoentzako guneak, parkeak eta alde-zaharrak, ken daitezela beraien ordezkotzako aparkaleku zabal eta duinak egin daitezkeen.

Kofradiako ohorezko kideak: Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eta Nafarroako Gobernu zuzena, Euskal Herriko Diputazioak, Komertzio, Industria eta Zuzen Garbarak, Bide Zuzen eta Portuetako Injenieri Eskolak.

Aldi berean, ondorengo laguntza desinteresatua eskertu nahi genuke: "Marra" eskudra eta kartaboiaren lantegia; Cepsa, Repsol, Texaco eta Petronor; Paris-Dakkar Rallya; Dragados y Construcciones; Autopista Vasco-Aragonesa; Ave (Renfe), eta Iberia eta Aviaco.

LEINTZ-GATZAGA/LANDA PROPOSAMENAREN  
ALDEKO TALDEA

## Erakustareto handi eta zuria

Bergaran bizi den arte zaletu bezala, aspaldidanik somatzen dut hutsune handi samarra herrian eta gabon parte honetan ikusgai izan diren bi erakusketetan (pintura eta eskultura) agerian geratu da berriz ere.

Kultur Etxeko erakustaretoaz ari naiz. Alde batetik, ez da egokia eskegitzeko egokierari dagokionez: lan bidimentsionalak era-

kusteko ez dago paretara behar bezain luze/zabalik eta leiho eta bestelako sartu-irritenak ugari dira.

Bestetik, espazioa ez da aski kasu askotan: erakutsi beharreko obra ale ugari duna bada eta/edo neurri handikoa ez dago zer eginik.

Bergarak erakustareto handi eta paretara zuziduna behar du; garbia, txukuna, fisiko eta kontzeptualki aseztikoa; artelana, edozein dela ere, modu neutro eta duinean erakutsiko duena. Errotalde jauregiak horretarako aukerarik ematerik ez badu bestelako soluziobidetera jo beharko litzateke: adibidez, Poligono aldeko industrialdean pabiloier bat zeregin hauetarako erabilitea.

Kanpoko jendea ere erakar lezake areto berriak, erakustareto egokia izatera, artista ezagunak ere gerturatuko bailirateke betidanik artearekiko jarrera berezia izan duen gure herrira.

M. J. A. (NAN: 15.389.672)

## Tiira biraka





**Kitarra ikastaroa**

Jardun Elkarteak kitarra ikastaroa antolatu du urtarrilaren 25etik martxoaren 22ra bitartean. Izen-ematea Kartzelan egin beharko da urtarrilaren 22a baino lehen. Bazkideek 1.500 eta gainontzekoek 2.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

**Kontzertua**

Gaur, eguakitza, *GBH*, *Manolo Cabezabolo y su banda* eta *Animales muertos* taldeak izango dira Jam aretoan 10etan.

**HILDAKOAK**

- Hortensia Lopez Chico**  
Abenduak 19.
- Leona Bengoa Kortazar**  
Abenduak 19, 79 urte.
- Maria Luisa Alberdi Larrañaga**  
Abenduak 20, 80 urte.
- Elisa Iglesias Belmonte**  
Abenduak 20.
- Juan Tabares Alcaraz**  
Abenduak 20, 37 urte.
- Manuel Vicente Montealegre**  
Abenduak 23, 35 urte.
- Francisca Uribarri Arriola**  
Abenduak 24, 90 urte.
- Blanca Arriola Arregi**  
Abenduak 26, 84 urte.
- Maria del Carmen Eizagirre Irure**  
Abenduak 26, 67 urte.
- Casimiro Odriozola Elkoroberezibar**  
Abenduak 29, 85 urte.
- Maria Jauregi Beloki**  
Abenduak 30, 86 urte.
- Ignacia Murillo Valiente**  
Urtarrilak 4.
- Vicente Mujika Mujika**  
Urtarrilak 4, 90 urte.
- Valentina Kortazar Bengoa**  
Urtarrilak 7, 88 urte.

**JAIOTAKOAK**

- Arantzazu Lopez Herrador**  
Abenduak 16.
- Ainhoa Molpeceres Garcia**  
Abenduak 23.
- Amaia Eguren Gongeta**  
Abenduak 24.
- Gorka Gonzalo Iglesias**  
Abenduak 26.
- Julen Blazquez Quintas**  
Abenduak 26.

**Nikolas Mujikaren seme-alabek 20 koadro emango dizkiote Udalari**

**Nikolas Mujika** bergarar margolariaren seme-alabek 20 koadroko doaintza egin diote Bergarako Udalari. Nikolas Mujika 1885eko abenduaren 6an jaio zen San Pedro kalean eta Alejandrino Irueta maisuaren eskutik hasi zen pintura lantzen. 1924an pintura estudio propioa zabaldu zuen Mujikak Zarautzen eta, Diputazioaren laguntzaz, Madrilen ere izan zen ikasketak osatzen. Ondoren, Ameriketara hainbat erakusketa egin zituen eta arrakasta haundiz itzuli zen Euskal Herrira. Bere azken lanak Donostiako Karmeldarren Elizan Gerra Zibilaren garaian eginiko pinturak izan ziren. Nikolas Mujika 1948ko martxoaren 1ean hil zen Donostian, 62 urte zituela.

Orain Mujikaren seme-alabek bere aitaren hainbat lan Udalari ematea erabaki dute. Hala ere Udalak ez ditu koadroak oraindik jasoko. Arantzazu Mujika, Imanol Mujika, Mirentxu Mujika, Begoña



Mujika eta Gotzon Egaña bizi diren bitartean, eurek izango dituzte koadroak. Koadro horien artean, besteak beste, San Martzialgo erromeria Bergaran, Ostiral Santua Berga-

ran, Aizkorri gainak edo autoertrato bat aurkitzen dira. Koadroekin batera Mujikaren seme-alabek bergarar margolariari buruzko hainbat dokumentazio emango diote

Udalari, tartean prentsa errekorreak, artikuloak edo katalogoak. Udalak epe luze-  
ra museo bat egiteko asmoa dauka bere patrimonio guztia herriari erakutsi ahal izateko.

Nikolas Mujika pintorearen seme-alabek Bergarako herriari emandako 20 koadroetako bat da aldamenekoa.





### Beart elkartearekin ARCOr irteera

Beart herriko artisten elkarteak, hirugarren urtez, otsailean Madrilen izango den Arte Garaikideko FERIA ikustera joateko irteera antolatu du. Irteera otsailaren 14an izango da, arratsaldeko 7etan autobus geltokitik eta egonaldia Madrilen *Convencion* hotelean izango da. Itzulera, berriz, otsailaren 16an 5etan egingo da. Bidaiaren prezioa 13.200 pezetakoa izango da (gela bikoitzak izango dira). Interesatuak Kultur Etxean eman dezakete izena urtarrilaren 31a baino lehen.

### Matrikula kanpaina AEK Akulu euskaltegian

Begarako AEK Akulu Euskaltegian otsaileko matrikulaldia urtarrilaren bukaerara arte izango da zabalik. Interesatuak Masterreka 13ko lokalera jo dezakete, 11etatik 13:30etara eta 16:30etatik 21:30etara. Argibideak 76 05 18 telefonoan.

### Euskararen Unibertsoa: Jardunaldiak martxoan

Euskararen Unibertsoa mugimenduak martxoaren 7an eta 8an egingo ditu bere jardunaldiak. Bertan, azken urteotako euskalgintzaren balantzea egin eta etorkizuneko erronkei heldu ahal izateko bideak artikulatzea izango dira jardunaldion helburu nagusiak. Bertan aztertuko diren hiru txostenak jasotzeko interesa dutenek Akulu Euskaltegira (Masterreka 13), Udal Euskaltegira (Zabalotegi 13) edo Jardun Elkartera (Masterreka 13) jo dezakete.



Gurutze Gorriko basearen atzekadean kanal zahar bat aprobetxatu da pizina egiteko.

## Gurutze Gorriari espedienteak ireki dio Gobernu Batzordeak

*Udal baimenik gabe pizina bat egiteagatik*

Udaleko Gobernu Batzordeak San Prudentzioko Gurutze Gorriari espedienteak irekitzea erabaki zuen abenduan, udal baimenik gabe Gurutze Gorriaren atzealdean pizina bat egiteagatik. Udal txostenaren arabera bertan ezin da horrelako eraikuntzarik onartu, Arau Subsidiarioen irizpideei jarraituz. Gobernu Batzordeak epe bat eman dio Gurutze Gorriari erakunde honek beharrezko alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Deba Garaiko Gurutzeko Gorriko ordezkarien arabera, San Prudentzion ez da inolako pizinarik egin baizik eta Union Zerrajerako lehengo kanal zaharra aprobetxatu da bakarrik. Aipatutako kanala urez bete da bertan egoten diren Gurut-

ze Gorriko kideak uda partean bainu bat hartzeko aukera izan dezaten. Kanala, esan bezala, basearen atzekaldean dago eta 10x2 m. inguruko neurria du. Gurutze Gorrikoak haserre azaldu dira azken egunetan Begarako Udalak azaldutako jarrerarekin. Bertako ordezkari batek azaldu digunez, *"hainbeste ordu hemen egoten diren boluntario eta objetoreei aliziente bat eskeintzea ez dago gaitziki, musutruk ordu asko sartzen dituzte hemen eta. Gainera lehenetik zegoen kanala aprobetxatu da"*.

Egun 200 boluntario, eta ordezkari zerbiztu soziala egiten ari diren beste 50 objetore ari dira zerbiztua prestatzen. Deba Garaiko Gurutze Gorriak Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oriñti eta Bergaran eskeintzen du zerbiztua.

**MUJIKA**  UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE  
**FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta, 5  
☎ 76 20 34



# Gero eta aukera gehiago Iralan apartahotela jartzeko

*Iralako jabeek ez dute oraindik proiektua aurkeztu*

Oraindik ere proiektu definitiboak aurkeztu ez den arren, Iralako lursailean apartahotel bat jartzeko aukera gero eta haundiagoa da. As-teartean Udaleko ordezkariak eta Espectaculos Bergara S.A. enpresako ordezkariak diren Jose Mari Irizar eta Jesus Quemada bildu ziren. Irizarrek eta Quemadak Iralako zinea ordeztuko duen eraikuntzaren zirriborroa aurkeztu zioten Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziari. Hasierako proiektu horren arabera, eraikuntzaren lehendabiziko solairua lokal komertzialetarako izango da eta goiko bi solairuetan, berriz, apartahotela jarriko litzateke. Hala ere, oraindik Udala erantzun definitiboaren zain dago eta datozen egunotan udal teknikariek

apartahotelei buruzko legeria aztertuko dute horrelako iharduera bat martxan jartzeko oztoporen bat dagoen ala ez ikusteko. Kontua da hementik egun gutxira Espectaculos Bergara S.A.k proiektu definitiboak aurkeztu beharko duela Udaletxean.

Erakuntza berriak lehen Irala zineak zuen bolumen bera izan beharko du eta proiektu berriarekin hainbat urtetan soluziorik gabe egon den arazo urbanistiko nagusienetako bati irteera emango zaio. Irala zinea 10 urtez egon da itxita Udalak eta Espectaculos Bergara S.A.k iazko urtarrean kolaborazio hitzarmena sinatu arte. Datorren urterako proiektu berria bukatuta izatea espero da.



Irala zinearen lursailetan eraikuntza berria egingo da aurten.

## Inersoko termalismo programa martxan

Bergarako Jubilatuen Egoitzak dei egiten die Inersoko termalismo programan parte hartu nahi duten guztiei lehen bait lehen izena emateko. Udaberriko txandetarako (otsailetik abuztura bitartean) eskakizunak urtarilaren 16rako aurkeztu beharko dira eta udazkeneko txandetarako (irailetik abendura bitartean) epea, berriz, maiatzaren 16ra arte izango da zabalik. Txandak 15 egunekoak izango dira. Argibideak Jubilatuen Egoitzan, 76 21 40 telefonoan jaso daitezke.

## Amodiozko gutunen lehiaketa

Amodiozko Gutunen V. Berrigara lehiaketarako lanak entregatzeko epea datorren eguakitzean, urtarilaren 17an, bukatuko da. Irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu eta horrez gain beste sari batzuk ere izango dira. Argibideak Jardun Elkartean, 76 08 19 eta 76 36 61 telefonoetan.

## Gazinemaren emanaldiak Antzuolan

Etenaldi luze baten ondoren Antzuolako Gazinemak bere ohizko emanaldiei ekingo dio gaurtik. Gaur gaueko 10etan *Apolo XIII* filmea emango da eta datozen astetan *Braveheart* eta *El primer caballero* eskeiniko dira.

## Heavy emanaldia Jamen datorren ostiralean

Datorren ostiralean kontzertu berri bat izango da Jam aretoan. Saratoga taldeak gonbidatutako beste talde batekin joko du hilaren 17an Bergarako diskotekan.

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi ☎ 76 15 09**

**INFERNUKUA**

**TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49



**Gabon hotz eta jendetsuak**

Eguraldi hotza, Gabonetako ohizko ekitaldiak eta Errege bezperan kalean ibili zen jendetza izugarria izan dira aurtengo Gabonetako protagonista nagusiak. Santo Tomas eta loteriak iragartzen dute Gabonen etorrera, eta Bergaran Gabonetako Kontzertuak, eskaparate lehiaketak edo kaleko argitxoak. Gabon egunean, asko izan ziren kalera abestera irten zirenak: Alai Taldea, Gestorak, Kintoak, ikasbideietakoak..., eta hutsik ez zuten egin ikastetxeetako haurrek. Bestalde, Gabonetako opor egunak aprobeztatuz, era askotako ekitaldiak antolatu dira aurten ere: musika eta antzerki emanaldiak, kirol saioak, haurrentzako jolasak... Bizar Zuri eta Erregeen etorrerak interes bereziarekin jarraitu dituzte gaztetxoek. Eta eguraldiari buruz zer? Gabonetan hotz egitea normala da, baina tenperatura hotzak ezezik, elurra ere izan dugu aurten. Errege egunean, erregaloekin batera, elurra jaso genuen opari moduan. Eta Errege bezperako juergari dagokionez, berriz? Tabernari eta jatetxeetakoak pozik, sekula baino jende gehiago ibili omen baita aurten. Kanpotik jende ugari hurbildu zen Bergarara.



Haurrak izaten dira Gabonetako protagonistak. Gabon kantak abestera kalera irten dira aurten ere. Bestalde, Kirolegian jarritako jolas parkean primeran ibiltzeko aukera izan dute, eta Bizar Zuriren etorrerak ikusmin handia sortarazi zuen hilaren 30ean. Gainera argazkian, Casa Agirreko Marisa Agirre, Eskapare lehiaketa irabazteagatik Udalak emandako plakarekin.





Osasuna

## Asma

**- Asma nola definituko zenuke?**

- Birikietako gaisotasun kronikoa da asma, trakea eta bronkioen arteko estugune batek eragindakoa. Esan behar da estugune edo butxadura hau prozesu itzulgarria dela. Butxadura bi arrazoiengatik ematen da: bronkioen inflamazioa, haunditzea batetik eta hiperreaktibilitate bronkiala bestetik. Asma edozein adinetan ager daiteke baina kasuen %50a 10 urte bete baino lehen ematen dira. Bestalde, eraginari dagokionez, biztanlegoaren %3-5a asmatikoa dela ikusi da.


**- Zeintzuk dira asmaren sintomak? Eta diagnostikoa?**

- Eztula (batzutan disnea, hau da, aire faltaren sentazioa) eta bronkioen txistuak izango lirateke asmaren sintomak. Sintoma horiek agertzen direnean butxadura bat dagoela konprobatzera jo behar dugu eta espirometro deitutako aparailuaren bitartez egiten da hori. Kanporatutako aire bolumena neurtzen du espiro-

metroak eta kopuru hori pertsona bakoitzari dagokion aire bolumen idealarekin konparatzen da. Ondoren bronkodilatadore ematen zaio, berriz neurtzen da aire bolumena eta, hobekuntza nabaria ematen bada, krisi asmatiko baten aurrean gaude.

**- Zeintzuk dira asma agertzearen arrazoiak?**

- Ez dira guztiz eza-




CARLOS PARRA

(Medikua)

gutzen. Kasu batzutan jakitzen da asma eragin duen faktorea baina beste zenbait kasutan ez. Estimulo asko daude: alergiakoak alde batetik (udaberrian ematen diren krisi asmatikoak), kirola egiteak ere asma sortzen du kasu batzutan, temperatu-

### “Birikietako gaisotasun kronikoa da asma eta edozein adinetan agertzen da”



Tabakoa, kutsatutako lekuak edo poluzioa ebitatzea ondo dator.

rak ere bai (hotzak edo hezetasunak eragindakoa) eta industriako produktu kimikoen eraginez sortutako asma ere eman daiteke. Esan bezala, askotan ez da jakiten zein izan den faktore eragilea, baina egin behar dena da krisi asmatikoa tratatu.

**- Zein izango litzateke jarraitu beharreko tratamendua?**

- Tratamendua hasieran aipatutako bi fenomeno horiei zuzenduta dago eta bronkodilatadoreak eta bronkioen haunditzearen kontrako antinflamatorioak hartu behar dira. Bigarren hauek asmaren tratamendu sakona suposatzen dute. Nahiz eta pazientea ondo egon ez du tratamendua laga behar, tratamendu kronikoa baita. Tratamendua helburu nagusia gaisoak bizitza normala egitea izango litzateke.

**- Badira asmaren kontrako txertoak...**

- Bai, piskat zalantzan daude baina badirudi emaitza positiboak izan dituztela, batez ere hautsak eta polenak eragindako asmen kasuan. Dena den bi urtetan hobekuntzarik somatzen ez bada txertoak hartzeari uztea izango da onena. Asmatikoak berak jakin behar du bere gaisotasuna neurtzen. Eta beti etorriko da ondo tabakoa, kutsatutako lekuak edo poluzioa ebitatzea.

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



# Pili Azkarate

## Bergarako merkatal giroaz berbetan



Pili Azkaratek idazkari lanak egin ditu Bedelkarren. Orain, Udaleko artxiboan egiten du lan.

**Bedelkar herriko dendarien elkarteak hiru urte bete zituen abenduan. Pili Azkarate izan da elkarteako idazkaria eta Sebastian Imazek hartu dio erreleboa. Gaur egun 165 komertzio (dendak, tabernak, zerbitzuak) daude elkartearen sartuta eta Azkarateren usteetan oraindik ere lan dexente egin beharko da komertzio txikiaren krisi egoera gainditu ahalizateko.**

**E**lkartea sortu zenetik herriko komertzioek hobera egin al dute?

- Ez dut uste herriko komertzioen egoera asko aldatu denik. Kontsumoa jeitsiz doa herri guztietan, batez ere superfizie haundien kompetenziagatik. Horrelako superfizie haundien kompetentzia gero eta haundiagoa da eta horrek kalte asko egin dio komertzio txikiari. Inguruko herrietan alde zaharrak hutsik geratzen ari dira eta horren aurrean zerbait egin beharra dago, azken batean komertzio txikiak baitira herriari bizia ematen diotenak. Pentsa komertzioen argiak emendatuko balira edota pertsona nagusiek euren eguneroko erosketak derri gorrez superfizie haundietan egin beharko balitzukete...

**- Bergaran ere horrelako superfizie haundibat irekiko da laister...**



- Hori ere beste konpetentzia bat da guretzat, nahiz eta herrian zabaldu. Egia esan, zabaldu arte ezin dugu jakin nolako eragina izango duen guggan. Igual Eroskiri guri baino kalte gehiago egingo dio... azken batean Eroskiren konpetentzia zuzena baita hori. Igual jendea erakartzen du Bergarara..., ez dakigu. Dena den, holako superfiziek herritik kanpo zabaltzen dira eta hasiera batean guretao kaltegarriak direla pentsa daiteke, herriak hutsik geratzen dira eta.

**- Zer egin daiteke superfizie haundien aurrean?**

- Kaleko giroa berpiztu. Kontsumoa ezin da esan guk berpiztuko dugunik baina kaleko giroa animatzeko zerbait egin dezakegula bai. Superfizie haundietan hirietako

zerbitzuak kopiatzen dituzte eta gu hirietan gaudela aprobeztatu behar dugu eurei konpetentzia egiteko. Jendea arratsaldea pasatzera joaten da superfizie haundietara eta guk zerbait eskeini behar diogu jendeari hemen geratzeko. Baina horretarako Udaletxearen laguntza behar beharrezkoa dugu, aparkalekuak eta komun publikoak jarri, kaleko argiztapena hobetu edo kaleak ondo garbitu eta apaintzeko.

**- Eta zuen aldetik?**

- Kaleko giroa berpiztu, animazioa sortu. Ekitaldiak antolatu behar ditugu jendea kalean gustora ibili dadin. Eta horrez

aparte eskaparateak txukun jarri, bezeroengana-ko tratua hobetu... Horretarako gure artean batasuna behar da, oso anarkikoak garelako. Pentsatu behar dugu herri guztientzat lan egiten dugula eta giroa piztea lortzen badugu guztion onerako izango dela hori. Elkartean bada lanerako prest dagoen jendea baina beste batzuk gehiago inplikatzea falta da.

**- Bedelkarrek bere bazkideentzat hainbat ikastaro antolatu izan ditu. Nolako erantzuna izan dute?**

- Bai, marketing, eskaparatismo edo informatikari buruzko ikastaroak

egin izan ditugu baina aurten ez dugu ikastarorik egin aurreko urteetan defizitarioak izan direlako. Eta ez da izan gogo faltagatik. Dendari gehienek arazoak izaten dituzte ordutegiarekin (ordutegi oso zabala da komertziantea) eta hortik etorri dira arazoak, ezin izan dugu talderik osatu.

**- Zein izan da zuen lorpenik haundiena urte hauetan?**


- Euskal Elkarte Autonomoan beherapenen dekretua onartzea lortu da dendarien elkarten eraginez. Dekretu honen arabera, neguko beherapenak ezin izan dira hasi urtarrilaren 7ra arte, bai-

**“Kontsumoa jeitsiz doa herri guztietan, batez ere superfizie haundien konpetentziagatik. Horrek kalte asko egin dio komertzio txikiari”**



Pili Azkarateren ustez kaleko giroa berpiztu beharra dago jendea herrian kontsumitzera erakartzeko.





Bedelkarreko idazkari ohiak merkatarien arteko batasuna beharrezkotzat jotzen du aurrera egin ahal izateko.

na zenbait komertzio hasi dira dagoeneko dekretu horri buelta ematen: beharpenak ezin izan direnez jarri, ofertak eskeintzen dituzte eta kitto. Beraz, lehengotan jarraitzen dugu. Azken finean, ez dago oso finkatuta oferten eta beharpenen arteko bereizketa hori eta urtetan horrekin ibili eta gero, ez dugu gauza haundirik lortu.

**- Gabonak zelan joan dira?**

- Oraindik ere goiz da balorazio bat egiteko baina jendea ikusi da dendantan. Egunkarietan ere oso informazio optimistak kaleratu dira, salmentek go-ra egin dutela esanez baina ikusi egin behar hurrengo hilabetean, kon-

tuak ateratzeko orduan. Aspaldian behintzat ez zen horrenbeste jende ikusten erosketak egiten.

**- Nola baloratzen duzue eskaparate lehiaketan lortutako erantzuna?**

- Ondo, aurreko urteetako moduko partaidetza izan zen, 23 denda denera eta esan behar da epaimahaiaren eta herritar botoemalen iritziek bat egin zutela. Gertatzen da Gabonak baino dexente lehenago egon behar direla eskaparateak gertu eta horrek partaidetza

murriztu egiten du nire ustez. Baina ez dago beste metodorik, eskaparatea ezin baita aldatu lehiaketa epean eta hori ia ezinezkoa izango litzateke Gabonetan, horregatik aurreratzen da eskaparatearen erakusketa epea. Baina maila oso ona egon da eta horren leuko Gipuzkoa mailan ere Nini-ka, Gisasola eta Baster dendetako eskaparateak saritu dituzte.

**- Ez duzu uste sariak indartu beharra dagoela?**

- Egia da sariak pobre-

tuz doazela baina hori Udalaren kontua da. Guk epaimahaiaren parte hartu eta herritar botoemalen saria ematen dugu, besterik ez. Baina ez dakit diru arazoa den ala ez. Nire ustez, inportanteena jendea komertzioetara erakartzea litzateke eta ikusten da jendea kalean eskaparateak ikusten. Beste aliziente bat izaten da eta parte hartzen duten komertzioentzat (eta zer esanik ez irabazleentzat) publizitate ona da lehiaketan parte hartzea, jendea gehiago fijatzen baita

**“Superfizie haundietan hirietako zerbitzuak kopiatzen dituzte; gu hirietan gaudela aprobetxatu behar dugu eurei kompetentzia egiteko”**



euren eskapareteetan.

- **Bergara zein egoratan dago beste herri batzuekin konparatuz?**

- Berdintsu. Arazo nagusia kontsumoa jeistea izan da, bai hemen eta bai Gasteizen ere. Orokorrean jendeak diru gutxiago gastatzen du. Jendearen ohiturak aldatzen ari dira: lehen jendeak janzten diru dexente gastatzen zuen, domeketan denak dotore-dotore kaleiratzen ginen eta orain berriz txandalarekin. Jendeak nahiago du bidaia on bat egitea eta beste gauza batzutan gastuak murriztea. Gaur egungo tententzia da hori.

- **Nola ikusten duzue Oxirondoko azoka bultzatzeko ahalegina?**

- Ezin dizut ezer esan. Orain dela gutxi etorri ziren azokakoak gugana baina oraindik ez dira el-

## “Jendearen ohiturak aldatzen ari dira: lehen janzten diru dexente gastatzen zen eta eta orain berriz jendeak nahiago du bidaia on bat egitea”

kartean sartu. Gure laguntza nahi zuten azoka indartzeko baina azkenean ez dugu elkarrekin lanik egin.

- **Urtarrileko aldapa nolakoa izaten da komertzioarentzat?**

- Ba aldapa gogorra izaten da, bai. Jendeak Gabonetan hainbeste gastu egin ondoren orain kontsumo hori nabarmen jaisten da. Beherapenetan ere ibiltzen da jendea baina ez da lehen bezala. Gaur egun jendeak ez daki beherapenak zer diren eta lehen berriz erosketak interesgarriak egiteko aprobeztatzen ziren. Orain ofertak, promozioak etabar dauzkazu edo-

zein momentutan eta horrek azken batean jendea nahastu baino ez du egiten. Nire ustez komertzioarentzat oso kaltegarria da hori. Iritzi pertsonala da hori baina kontua da nahaste izugarria dagoela promozio, oferta, deskontu eta beherapenen artean.

- **Noiz hasten da gainditzen urtarrileko aldapa?**

- Komertzio bakoitzaren arabera izaten da hori, baina orokorrean kalean karnabaletan berriz ere jende gehiago ikusten hasten da disfrazetarako eta erosketak egiten. Janari dendetan berriz jaiak tokatzen diren egunetan

salmenten igoera somatuko dute... Zaila da esatea noiz hasten den berriz mugimendua baina otsail aldera lortzen da bai guztioi hain gogorra egiten zaigun urtarrileko aldapa gainditzea.

- **Idazkari lanpostua utzi ondoren, Bedelkarrekin lanean jarraitzeko asmorik?**

- Bai, orain ez nago komertzio munduan lanean baina ia hiru urte Bedelkarren lanean egon eta gero ni prest nago ahal dudan neurrian nire laguntza emateko. Esperientzia oso polita izan da eta lagun haundiak egin ditut, giro polita egon da gure artean.

# Bushi-te Shorei

## BARNE-ENERGIAKO ESKOLA

Tradiziozko karatea. "Shorei" gimnasia



ESKOLA

**INFORMAZIO GEHIAGO: astelehen, asteazken eta ostiraletan.  
20:30etatik 21:30etara. Poligonoko Aranzadi Ikastolaren gimnasioan.**



# Urtarrileko aldapa igartzen al duzu? Gastuen murrizketarik egiten duzu Gabon ostean?



**Felisa Uribarri**

Nik ezer ere ez. Gabonetan gastu haundirik ez dut egin eta orain ere antzera, gastu gutxi daukat nik. Nik berdin jarraitzen dut.



**Jose Agirre**

Nik antzera jarraitzen dut, Gabonetan ez dugu gastu haundiegirik egin eta. Lehenago bai, sasoi geunkanean... Urte guztian antzera gabiltza.



**Maria Pilar Iglesias**

Ez, dirua ondo administratzen saiatzen naiz urtarrila hain gogorra ez egiteko. Osasun aldetik? Kilo batzuk gehiago utzi dizkit Gabonak, bai.



**Mila Agirrezabal**

Niretako abendua izaten da gogorragoa, gastu gehiago egoten da Gabonengatik. Urtarrilean, bueno. Urte berriari? Berdin jarraitzea eskatu diot.



**Pablo Landa**

Karo baietz!! Eta langabezian egonda oraindik gehiago. Gabon ostean ez ditut gastuak gehiago murriztu, egunean bizi eta kitto. Lana eskatu dut urte berrirako.



**Francisco Miranda**

Asko igartzen da, seme-alabekin eta gastu asko dira. Ahal dugun moduan aurrera egiten saiatzen gara. Langabezian geratu ondoren, lana lortzea da nire asmoa.

**ARREGUI, E.M.**



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

*Deco-Textil*

**ZANGITU**

Etzerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.  
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak  
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**IKUSBI**

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

*iletxo*

ileapaindegi mistoa  
**BEGOÑA ARZELUS**  
Fleming Doktoorea, 7 BERGARA  
☎ 76 53 15






## ... Eta gurasoen etxera

Kalean bueltatxo bat eman eta jendea ikusi dut, harantz-honantz. Gehienak prisaka eta korrika, gutxi batzuk lasai-lasai; barrazkiloak egun eguzkitsuetan ibiltzen diren moduan. Gazteak, helduak, nagusiak, neska-mutilak, animaliak eta hauen kolorezko kakatxoak aurkitu ditut bide bazterretan. Eta jendea aurpegi ilunekin ikusi dut. Bazkaldu barik izango ote diren eta ea horregatik izango ote den hain aurpegi zurbilen abundantzia galdetu diot neure buruari. Baina, uste dut ez dela horregatik izango. Mundu xelebrea hau benetan. Patrikak miatu eta txakur haundirik ez daukadala konturatu naiz. Ezta txikirik ere. Redios!! Hau angustia derrepentean sartu zaidana. Eta ze ostias egingo dut nik, galdetu diot orain neure buruari. Eta pentsatzen hasi naiz. Bapateko ideia diferente mordo batek asaldatu naute:

Lana bilatzea da burutik pasatu zaidan lehenengoa, baina errealitatean hezitutako nire ordenadore pertsonalak ilusio faltsuak, hau da, desertuan oasis bat aurkitzea, edota lastategi batean orratz bat bilatzearen alperrikako lana, berehala ukatzen ikasi dituenek, elizara joan eta igandetan batzen den dirua ohostea makinatu dut, gero lagunekin babajana egiteko. Babajana egitea pentsatu dut zeren ziur nago hango diruarekin ez dudala lortuko pisu bateko hilerokoa ordaintzea. Baina gero gogoratu dut lagunek eta nik ez dugula "Olla-expressik" erabiltzen ikasi, zeren 25 urteko gaztea naizenez, ordenadorea, modema, bideoak eta horrelakoak manejatzen ikasi dut bakarrik. Gainera apaizari ez zion grazia haundirik egingo. Horretaz ziur nago.

Baina ez naiz gehiegi arduratzen, bankoan diru piskat badaukat eta. Hura gastatzen denean izango dira komeriak. Nola demontre bizi behar naiz etxetik kanpo, patrikatik duro bat jautzen zaiionaren atzetik egunero gutxienez 6-8 ordu sartzen ez baditut. Uste dut lana aurkitu dudala. Orain Seguritate Soziala eta desenpleo-prestazioa tokatzen zaidan jakitea besterik ez zait falta.

**Xabier ARANBURU**



## Auditorioa lehenbailehen

Iragan berri diren Gabonetako Kontzertua, aurtan ere, frontoian eman da. Ahal den lekuan ematen ohi da, hobe beharrez, hainbeste bergararren lan luzearen ekarria den kontzertu ederra.

Nori berea ei da legea; aitortu, bada, frontoari bere partea: pilotaleku izatearena, alegia; ez kontzertutegi.

Denon gogoan daude oraindik "Miserableak" izeneko ikuskizunak lagatako ahogozo eta oroitzapen bikainak. Ikuskizun hartan jardundakoek ederki dakite hura guztia gertatzen ahuntzaren gau erdiko eztulak baino luzexego iraun zuen denbora behar izan zela.

Alde ederrekoa Victoria Eugenia antzokia, bai aktoreek akutuatzeko, eta bai ikusentzuleek espektakuluaz gozatzeko; bai horixe!

Betiko musika eta antzerkizale taldeek une honetan beronean, jakina denez, otsailaren leheneko aginduta daukan "San Martinen estampa" deritzan lana prestatzen jardun du jo eta su.

Udalak dena aztertua eta erabakia duela esana du honezkerro, bere golkorako, jakinaren gainean dagoen irakurle batek baino gehiagok; alegia, auditorioa egiteko asmoa oso aurreratu dagoela, eta hemen idatzitako guztiak itsasoan egindako euriak adina balio duela.

Eta horrelaxe izango da; solamente, dugun musika mugimendu indartsu, emankor eta kanterakoak auditorio hori noizbaiterako barik, ahalbait lasterren eskatzen dihardu behin eta berriro ahots zoli eta ozen askoz. Lehen-lehenik, beraz, entzun; eta ondoren, erantzun!

**Markos BALENTZIAGA**

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**MAHER**

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

**POL-POL**

Taberna

☎ 76 07 78



**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA

☎ 76 13 35



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA




■ **Gabonetako zozketak**

AEK Akulu Euskaltegiak abenduaren 24an zozketatutako mariskada Infernokua tabernako **Javi Larrañagari** tokatu zitzaion. Argazkian **Iker Osa** tabernariarekin ikus dezakezue. Saritutako boletoa 864 zenbakia izan zen. Bestalde, Gabonetako beste hainbat zozketetako zenbaki sarituak honako hauek dituzue: **Orkesta Sinfonikoaren saskia** 1.695 zenbakiarentzat, **Mariaren Lagundiko** ikasbidaiaiko zozketan 863 zenbakia (saskia),



**Lokatzakoan** 2.521 zenbakia (bizikleta bat), **Batzokikoan** 1.725 (bizikleta bat) eta 879 (saskia) zenbakiak izan dira sarituak, **Irudi erlojudendako urrezko erlojua** 6.816 zenbakiari tokatu zaio eta, azkenik, **Bedelkarrekoan** zenbaki hauek izan dira sarituak: 334.681 (200.000 pta. erosketa bonotan), 236.974, 97.665 eta 137.002. Azken hiru zenbakietako jabeek 100.000 pezeta eskuratuko dituzte erosketa bonotan.



■ **Futbolineko figurak**

**Ibon Larrañaga** eta **Iñaki Gabilondo** bergararrak izan ziren LAMek antolatutako IV. Futbolin Openeko irabazleak. Guztira, 90 bikote inguruk hartu zuten parte txapelketan eta Errege bezperako finalean, Jam aretoan, 9 orduz aritu ziren futbolinean jokatzeko. Kanporaketa ikusgarriak izan ziren eta azkenean, Iñaki eta Ibon nagusitu ziren Gasteizeko beste bi bikoteren aurretik. Ibon eta Iñaki maisuak ditugu futbolin kontutan, ez baita hau lortzen duten lehen garaipena. Hauek bai fitxaje onak... Eta Ronaldo baino gutxiago ez izateko, **100.000 pezeta** eskuratu zituzten sari gisa.

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

 **Maxim's**  
☎ 76 20 61

**PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!**  
**EUXEBIO II**  
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92





■ **Karnabaletako kartela**

Hirugarren urtez jarraian **Elena Reifs** bergararrak irabazi du Udaleko Kultur Zerbitzuak Karnabaletarako deitutako kartel lehiaketa. Elena Reifsek 25 urte ditu eta Arte Ederretan lizentziatua da. Saritutako lanean Elena Reifsek, kolore biziez, Zurruga gainean ikus daitekeen arlekin bat margotu du, atzean Bergara somatzen dela. Guztira sei lan aurkeztu dira lehiaketara eta beraz Elena Reifsen lana izango da Karnabaletako programako azalean joango dena. Sari modura, **50.000 pezeta** eskuratuko ditu Elenak. Aurtengo Karnabalak otsailaren 7tik 11ra bitartean ospatuko dira. Hasi disfrazak gertatzen!!

**Zertan dihardute ba?**



**Jon Andoni Urisabel**

Arte Ederretan lizentziaturiko 24 urteko margolari bergararrak *Euskal Arteko VII. Biurterokoa-Zornotzarte 96* lehiaketan lehen saria irabazi du pintura sailean. Zornotzako Udalak, Zornotza Aretoak eta Lurkoi elkarteak antolatutako lehiaketa honetan 94 artistak hartu dute parte, 49k eskultura sailean eta 45ek pinturan. Jon Andonik 350.000 pezeta eskuratu ditu sari gisa. Orain gutxi Eusko Jaurlaritzaren kreazio artistikorako beka bat eskuratu zuen Urisabelek eta gaur egun Londresen ingelesa ikasten ari da.

■ **Clemente Bergaran**

**Javier Clemente** Espainiako futbol selekzionatzailea Bergaran izan zen joan zen



abenduaren 24an. Egun horretan, arratsaldean, Aretxabaletan **Zubizarretari** eskeintzen zitzaion omenaldia aprobetxatuz, Antxonik jatetxean bazkaltzen izan zen Clemente, **Juan Luis Larrea** Gipuzkoako Futbol Federazioko presidente eta Espainiako Futbol Federazioko diruzaina denarekin eta **Pedro Egaña** bergararrarekin batera. Normala denez, futboleko kontuei buruz jardun zuten bazkari osoan zehar. Ez dakiguna da Agustin Aranzabal agertu ote zen Antxonin Clemente agurtzera...

**igor eta Txomin**

*Pintura orokorrean.*

Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak. Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA  
☎ 76 60 39

BERGARA  
☎ 76 19 98

**ZUBIETA**  
*elektragintza*

**MOTORREN BOBINAKETA**  
**ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea**  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua**  
**konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



# Dunixi Olabarria

**Dunixi Olabarria (37 urte) 15 urterekin hasi zen tabernari lanetan, Deportivon. Ordutik herriko hainbat tabernatan lanean ibili da eta duela 14 urtetik Pol-Poleko arduraduna dugu.**

- Zelan joan dira Gabonak?
- Ondo, nahiz eta sarrerako andamioak kalte dexente egin digun.
- Egunik onena?
- Errege bezpera, urtero moduan.
- Lana, egunez ala gauzez?
- Egunez.
- Noiz hartzen dituzu oporrak?
- Abuztuan bi aste eta urtean zehar egun batzuk.
- Urtarrileko aldapa igartzen duzue tabernan?
- Igartzen da zedozer.
- Bergaran zerbait somatzen duzue faltan?
- Gauza asko: komun publikoak, aparkalekuak, iturriak, bizikletak aparkatzeko guneak...
- Pol-Pol Mendizale taldeko kidea zara?
- Bai, betitik.
- Mendira joaten zara?
- Gutxitan.
- Gustoko mendi bat.
- Aizkorri.



*“Eskupilotan jokatzera gustatzen zait eta pilotarien artean, Retegi II eta Nagore. Bergarari gauza asko falta zaizkio, komun publikoak esate baterako. Olentzerok gauza praktikoak ekarri dizkit: erropak...”*

- Musika talde bat.
- Huajoloteak ez daudenez, Mal de ojo.
- Noiztik atsegin zaizkizu mexikanadak?
- Betitik. Eta orain 10 urte Mexikon egon nintzenetik gehiago.
- Los Panchos ala Huajoloteak?
- Huajoloteak, martxa gehiago daukate eta.
- Tekila ala Coronitak?
- Orain, momentuan, tekila.
- Tabernara nor ekartzea gustatuko litzaizuke?
- Gozategi anaiak.
- Ikusitako azken filmea.
- La taberna fantastica. Asko gustatu zitzaidan.
- Liburu bat gomendatzekotan?
- Alcala 20-N, Pepe Rei eta Eduarne San Martinena.
- Hobby bat.
- Pilotan eskuz jokatzera.
- Pilotari bat?
- Retegi II.a. Eta berrien artean Nagore.
- Zergatik joan da Indurain?
- Seme bat edukita ez zaio komeni arriskatzera. Ez dute ondo tratatu.
- Zer ekarri dizu Olentzerok?
- Gauza praktikoak, erropak...
- Animalia bat.
- Katua.
- Pertsonaia historiko bat.
- Zapata. Eta hemengoa Txabi Etxebarrieta.
- Zer eskatu diozu urte berriari?
- Gauzak txarrera ez joatea eta euskal presoak etxera ekartzea.



## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

## Pepelu

### Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
BERGARA

## Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

## Goierri

### AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** alokairuan hartuko genuke Donostian. ☎ 79 08 92 (Maidier).

**Pisua** konpartituko nuke Bilbon. ☎ 76 43 36.

**Bi oheko logela** berria salgai. ☎ 76 51 78.

**Kontsultarako** lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

**Garajea** salgai Santa Marinaran. ☎ 76 02 27/23 36.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

**Garajea** salgai Santa Marinaran. ☎ 76 18 95.

**Garajea** saldu edo alokairuan jarriko nuke Santa Marinaran. ☎ 76 47 67.

**Pisua** alokairuan Zubiaur-reko 19. zenbakian, lehen pisuan. ☎ 76 13 85.

**Kontsultarako** gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

**Arkaian**, Araban, 15.460 m2 salgai. ☎ 76 63 27.

**Pisua** salgai Arrizurin. Garajea. ☎ 76 55 28.

**Pisua** salgai Barrenkalen. ☎ 76 53 13.

**Pisua** salgai Soraluzen. 4 milioi. ☎ (94) 625 65 77.

**DENETARIK**

**Erloju** bat topatu dut Zurraderon. ☎ 76 16 57.

**Bi oheko logela** berria salgai. ☎ 76 51 78.

**Kerosenozko** estufa salgai egoera eta prezio onean. ☎ 76 21 71 (Amaia).

**Donostian** (Egian) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 50 (Gurutze).

**Bainuko** ispilua, toaileroa eta beste tresna batzuk oparitzen ditut. ☎ 76 39 96.

**Donostian** pisua osatzeko bi lagun behar dira. ☎ 46 03 98/76 25 59.

**Bigarren** eskuko botoiakordeoia erosiko nuke. ☎ 76 11 96.

**Taberna**-erretegia traspasatzen da. ☎ 76 24 45.

**Montesa** Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

**Kerosenozko** estufa salgai. ☎ 76 06 72.

**2. eskuko** motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

**Irrati kontroleko** abioia salgai. ☎ 76 51 94.

**Kotxe** teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

**Alemaniar** artzain txakurrak (emeak) saltzen ditut. ☎ 76 53 35/76 32 14.

**Logela** eta frigorifikoa salgai. ☎ 78 25 85.

**LANA**

**Lanak** ordenadorez pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

**Emakume** batek zaharrrak zainduko lituzke. Esperientzia. ☎ 76 48 96.

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Mate** eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

**Haurrak** edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

**Ingeles Filolojian** lizentziatua, klaseak emango nituzke. ☎ 76 41 31.

**Neska** frantses batek frantseseko klaseak ematen ditu. ☎ 76 27 16.

**Neska** euskaldun batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 64 60.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 16 96 (Olga).

**Klinika** auxiliari batek gaitxoak edo helduak zainduko lituzke. ☎ 76 64 47.

**Pertsona** euskalduna behar da bi haur zaindu eta etxeko lanak egiteko, 8etatik 3etara. ☎ 76 04 25.

**LAGUN ARO**

ASEGURUA

**AGENTEA-DELEGATUA****Ramon Iraegi Eguren**

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

**J.M. IZAGIRRE**  
**Igeltseritza**

**Era guztietako igeltseritza lanak**

Loidi Baserria ANGIOZAR  
☎ 76 56 86



# BONOFOTOA



## Estibaliz Sierra

**Estibaliz Sierrak** jaso du oraingoan BONOFOTOk o saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkietan agertzen ziren irudiak zein elizatakoak ziren galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Santa Marina eta San Pedro** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Estibaliz Sierrari** eman dizkiogu. Zorionak!!

***Zein da eliza honen izena eta zein egunetan ospatzen dute auzokoek santuaren eguna?***

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara




1 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A Ze FLAXA ETXAGI	24	8	41	10
2. ERROTAGAIN	22	9	39	15
3. JAUJA OH ZEREZOS	18	9	36	24
4. BAR CANALEJAS	16	7	30	20
5. BILDURBAREK OPEL/LAM	12	9	32	34
6. AZPEITXI JATETXEA	10	8	27	23
7. MONGATXURRA	10	9	26	28
8. OGIZUN	10	9	26	38
9. ORTZI	8	8	17	18
10. UFALA	8	8	26	31
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	7	8	30	28
12. MADURA INDUSTRIAS GOI	7	10	18	43
13. PAGOMENDI	3	9	15	43

2 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. KAYAK OS JARDINEIROS	19	10	44	31
2. ETXAGI	18	9	40	29
3. EZINLEIKE	18	9	40	32
4. ARTUSAMAK BERGATRANS	17	9	30	20
5. SOROPOTROAK	14	9	26	12
6. UVE BIKOITZA JAM	13	8	21	32
7. HALTZARI	12	9	27	23
8. LA JUVE	10	9	23	23
9. AGINASPI	10	9	22	36
10. AGIRREBEÑA JATETXEA	10	9	28	22
11. ERI	10	9	11	18
12. INDARGORRI	9	9	23	29
13. AUTOBEREZI	7	8	21	34

3 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	24	10	34	18
2. PJS	20	10	29	18
3. NEKROFIKOS	18	8	31	19
4. MOSKIS	18	10	30	22
5. JAKINA PATXARAN TEAM	17	9	26	19
6. TXIPIRON	16	11	31	38
7. FAC	13	9	32	22
8. IGANDEKOAK	11	9	21	28
9. NAHIKARI HOOLIGANS	11	9	19	27
10. EH BITERRAK	10	11	34	38
11. CONSTRUCCIONES BERGARA	7	9	18	36
12. GANBARA	4	9	19	36
13. MRW	4	8	14	28

4 TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARBE KIROLAK	28	11	60	26
2. MANITOU	27	10	70	15
3. ETENGABE	22	11	35	15
4. OSINTXU	20	11	26	19
5. MATXAKATEGI	19	10	39	26
6. PANORAMIX	15	10	23	32
7. XURRUPAK	13	10	33	39
8. AMILOTX	13	11	26	37
9. SLO	12	10	30	40
10. KOMANDO PIPERRAK	11	11	22	30
11. PATA NEGRA	9	10	23	37
12. ALDOKA MALDOKA	8	10	23	35
13. POLIDEPORTIVO TABERNA	4	9	14	45
14. PITTIXAK	3	10	20	28

## Jokoz kanpo



**Mario Eugenio**

**OSINTXU**

### ZER MODUZ TXAPELKETAN?

Azkenengo partidua galdu arren ondo gabiltza.

### ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, gogo handiarekin jokatzeko dugula eta txarreka, errezer haserretzen gara.

### KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

### PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Arratsalde, baina lehen orduan.

### TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Manitou.

### JOKALARIRIK ONENA?

Ez dakit.

### SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

10 eta 1 Etengaberi.

### ETA JASOTAKOEA?

7 eta 1 Manitouren aurka.

### ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

4 onenen artean sailkatzen bagara ondo.

### LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Ronaldo.

### MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Indurain.

### EUSKAL HERRIKOEA?

Indurain.

### JATEKO PLATER BAT?

Xerra, arraultza, patatak eta piper gorriekin.

### EMAITZAK

MADURA INDUSTRIAS GOI-ERROTAGAIN	3-14
OGIZUN-JAUJA OH ZEREZOS	3-3
HALTZARI-ERI	2-2
ETXAGI-BERGATRANS	3-9
SOROPOTROAK-KAYAK OS JARDINEIROS	1-1
INDARGORRI-AGIRREBEÑA	2-0
TXIPIRON-PJS	5-4
PATXARAN TEAM-GUADALEST	0-3
GANBARA-MRW	2-3
FAC-MOSKIS	3-1
CONSTRUCCIONES BERGARA-EH BITERRAK	2-4
IGANDEKOAK-NAHIKARI HOOLIGANS	1-1
AMILOTX-XURRUPAK	0-1
PITTIXAK-KOMANDO PIPERRAK	0-3
OSINTXU-SLO	2-5
MATXAKATEGI-ALDOKA MALDOKA	3-2

### PARTIDUAK

#### Zapatuan barruan

09:00: PANORAMIX-SLO • XURRUPAK

10:00: POLIDEPORTIVO TABERNA-XURRUPAK • SLO

11:00: PATA NEGRA-ALDOKA MALDOKA • POLIDEPORTIVO

#### Zapatuan kanpoan

10:00: NEKROFIKOS-MOSKIS • EH BITERRAK

11:00: ARI ARI GANBARA-EH BITERRAK • NEKROFIKOS

#### Domekan barruan

09:00: MADURA-A ZE FLAXA ETXAGI • BAR CANALEJAS

10:00: UFALA-BAR CANALEJAS • ARLOTEAK

11:00: ARLOTEAK OILAGORRA-OGIZUN • UFALA

16:00: BILDURBAREK-AZPEITXI JATETXEA • ERROTAGAIN

17:00: ERROTAGAIN-AZPEITXI JATETXEA • JAUJA OH ZEREZOS

18:00: ORTZI-MONGATXURRA • AZPEITXI JATETXEA

19:00: IGANDEKOAK-CONSTRUCCIONES BERGARA • FAC

20:00: FAC-MRW • CONSTRUCCIONES BERGARA

#### Domekan kanpoan

09:00: HALTZARI-AGIRREBEÑA • ARTUSAMAK

10:00: ARTUSAMAK-ERI • KAYAK OS JARDINEIROS

11:00: EZINLEIKE-KAYAK OS JARDINEIROS • ERI

16:00: SOROPOTROAK-UVE BIKOITZA JAM • AUTOBEREZI

17:00: INDARGORRI-AUTOBEREZI • UVE BIKOITZA JAM

18:00: ETXAGI-LA JUVE • INDARGORRI

### OHARRA

PITTIXAK TALDEA TXAPELKETATIK KANPO GERATU DA, BI PARTIDUTARA EZ AURKETEAGATIK.



## KARTELDEGIA

### Arko tiraketa ikastaroa

Arko tiraketa ikastaroa antolatu da Aranzadi ikastolak Boni Laskurainen duen gimnasioan. Astearte eta ostegunetan 20:30etatik 21:30etara izango da eta nagusiek 6.000 pta. eta 14 urtez azpikoek 4.500 pta. ordaindu beharko dituzte. Izena emateko gimnasia joan edo 908-318826 eta (94) 4376414 (gauez) telefonoetara dei daiteke.

### Gabonetako kross herrikoia

Gabonetan jokatuako herri krossean kanpoko korrikalariak izan ziren irabazle nagusiak. Halere, infantil mailan Ander Laborda eta beterranoetan Aitor Eraña bergarrek lortu zuten garaipena. Seniorretako lasterketan, gizonetakoan, Antonio Gomez iurretarrak irabazi zuen eta emakumezkoetan Kristina Petite durangarrak.

### Igerilariak Tolosara

Tolosako Euskal Herriko infantil mailako txapelketara joango dira zapatuan Bergarako igerilariak. Antxon Maiztegi, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur, Eneritz Muguruza eta Elisabeth Larrañaga izango dira.



**Lagunak elkarteko futbito taldeak** irabazi zuen Gabonetako futbito 2. txapelketa. Bergarrek finalean 5 eta 2 irabazi zioten Sunbillako taldeari. Aurretik, finalerdietan, Urretxuko taldearen kontra 4 eta 2 irabazi zuten. Emakumezkoen taldeak, berriz, 2 eta 1 galdu zuten Idiazabalgo taldearen kontra.

### Mongatxurrak taldeak

irabazi du Deba Garaiko Kirol Zerbitzuek antolatzen duten kuadrilen arteko olinpiada. Bergarrek futbitoan, waterpoloan, eskubaloian eta saskibaloian irabazi zuten eta bigarrenari alde nabarmena atera zioten. Aurtengoa bigarren urtea da Mongatxurrak irabazten duena eta sari moduan Port Aventura izango dute bidaia.



**Zarautzeko taldeak** irabazi zuen BKEk antolatzen duen jubencil mailako Gabonetako torneo. Zarautzarek, ezustekoa emanez, 1 eta 0 irabazi zioten Realari. BKEko taldeak, berriz, 3 eta 0 galdu zuen finalerdietan Realaren kon-

tra. Bergarrek partidu txukuna jokatu zuten eta Realak azkenengo minutuetan sartu zituen 3 golak. Partidu horrekin Enrike Nieto taldearen entrenatzaileak Fernando Oregiren eskuetan laga du taldea.





## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Antzuola

Erregional maila.  
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

## ◆ Bergara-Beasain

Lehen mailako kadeteak.  
Domeka. 12:00. Ipintza.

## ◆ Bergara-Eibartarrak

2. mailako kadeteak.  
Domeka. 9:45. Ipintza.

## ◆ Bergara-Billabona

Lehen mailako infantilak.  
Domeka. 10:45. Ipintza.

## ◆ Bergara-Antoniano

Emakumezkoak.  
Zapatua. 17:45. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Iraundi Bergara-Arrate

Senior mutilak.  
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Pulpo

Kadete neskek.  
Domeka. 12:15. Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Umietako

Jubenil neskek.  
Zapatua. 17:45. Kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Aletico SS

Senior mutilak.  
Zapatua. 16:15.  
Kiroldegia.

## ◆ Bergara-Hernani

Kadete neskek.  
Zapatua. 12:15.  
Mariaren Lagundia.

## ◆ Bergara-Aloña Mendi

Kadete mutilak.  
Zapatua. 10:00.  
Mariaren Lagundia.

## PILOTA

## ◆ Bergara-Oñati

Talde guztiak.  
Deba Arroko txapelketa.

## ◆ Bergara-Illunpe

Juniorrak banaka.  
Euskal Liga.  
Eguakitza. 21:30.  
Udal Pilotalekua.

## Iñigo Zaitegi

## Bergara Kirol Elkarteko buru

**BKEko preferente mailako futbol taldea behaldez sailkatuta dago. Azkenengo partiduan bina berdindu zuen, kolistaren kontra Agorrosinen. Taldeari buruz hitz egin dugu Iñigo Zaitegirekin, BKEko presidentearekin.**

## - Zer gertatzen zaio taldeari?

- Hasierako entrenatzaileak taldea laga egin zuen. Beste bat ekarri genuen eta taldeari eskua hartu dionean alde egin behar izan du. Orain entrenatzaile berria dauka. Hasi berria da eta oraingorik ez du taldea ondo ezagutzen, denbora eman behar zaio. Bestalde, jokalariek makal samar dabilta. Joan zen igandean 9 jokalarirekin geratu arte ez zuten geniorik erakutsi. Halere, jokalariekin hitz egingo dut arazorik duten jakiteko.

## - Azkenengo emaitzak kontutan izanda mailari eusteko aukerarik ikusten duzu?

- Bigarren buelta osoa falta da eta taldeak mailari eusteko kalitatea baduela uste dut.

## - Jokalari berriak ekartzeko asmorik?

- Asmoa beti, baina merkatuan ez dago aukerarik. Ramon Agirrezabali, Boni Agirrerri..., urtero esan diegu etortzeko, baina ezetza jaso dugu. Batez ere aurrean falta zaigu jendea.

- Jokalariari ez ordaintzeko erabakia, ona izan al da?

- Erabaki oso ona. Iaz jokalariek guztiak berdinduta zuten eta giro oso ona sortu zen. Aurten ere giroa oso ona da. Kallean askok esaten didate ordaindutako jokalariek ekartzeko, baina ez naiz horren aldekoa.

## - Aurten azkenengo urtea duzue direktiban, jarraitzeko asmorik?

- Ez, diru barik gabilta eta direktiboak izan beharrean loteria saltzaileak ematen dugu.


## - Entrenatzaile berriak zure konfidantza osoa dauka?

- Bai, gainera pertsona ona dela erakutsi du eta

konfidantza osoa eman behar zaio, hasi besterik ez du egin.

## - Udalaren aldetik jasotako dirulaguntza nahikoa da?

- Ez, 4 sailentzako bi milioi t'erdi jasotzen ditugu eta milioi t'erdi preferente taldeak eramaten du. Batazbestea 630.000 pezeta irtetzen da sekzio bakoitzarentzat eta hor daude beste elkarte batzuk, askoz jende gutxiagorekin, 690.000 pezeta jasotzen. Gainera Bergara Kirol Elkartea astero jartzen du ikuskizuna Bergaran eta hori ez da baloratzen.



"Entrenatzaile berriak nire konfidantza osoa du".

**"Direktiboak baino, loteria saltzaileak ematen dugu".**





Argazkia: Jabier Gabilondo

## Don Melitonen despedida. 1951.

**A**ste honetako Erretratu Zaharrak 1951 urtera garamatza. Urte hartan Meliton Sarasua abadeak Eskola Nazionaletan ematen zituen klaseak utzi zituen eta argazki hau bere despedidan ateratakoa da. Despedidan Don Meliton berak eramandako goxokiak ere jan zituzten mutikook. Hauek dira beraien izenak, ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Jose Luis Beitia, Angel Irizar, Jesus Mari Larrañaga, Felipe Gurrutxaga, Inazio Gillegi, Jose Mari Alberdi.

**Don Melitonen ilaran:** Javier Arzelus, Julian Elkoroberezibar, Teodoro Oregi, Jose Luis Unamuno, Meliton Sarasua, Elias Azpiazu (maixua), Jesus Mari Elkorro, Kandelario Zangitu, Juan Beitia; honen atzean ageri dena ezezaguna.

**Don Melitonen ilararen aurrean, argazkiaren ezkerrean:** Manolo Gabilondo, Jose Luis Mendizabal, Javier Mendizabal.

**Don Melitonen ilararen aurrekoan:** Patxi Leturia, Jesus Mari Elkoroberezibar, Luis Mari Oregi, Jose Mari Muruamendaraz, Juan Antonio Fernandez, Jesus Mari Larrañaga, Jabier Gabilondo, Jabier Laskurain, Jose Antonio Agirrebeña, Fernando Markina.

**Aurreragokoa:** Manolo Askasibar, Jabier Beistegi, Antonio Jesus Iturbe, Martin Aranburu, Jose Antonio Gonzalez, Mikel Lazpiur, Jose Ramon Mujika, Fernando Landa.

**Aurreko multzoan:** Julian Etxeberria, Jabier Etxeberria, Felix Iñiguez, Carlos Gallastegi, Jose Mari Ugarte, Alberdi, Pedro Egaña, Pako Herreros, Jesus Mari Eguren, Gaspar Ezenarro, honen aurrean Justo Idigoras, Juan Antonio Sebal, Patxi Igartua, Jabier Amenabar, Jabier Juaristi, Armando Gallastegi.

Industria  
hornikuntzak



Industriaren  
alde

# MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

# zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



# BERGARAKO osasun gida

## ■ ALBAITARIAK:

• ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobil: 907 48 71 19	Zurradero, 6 behea	☎ 76 70 67
• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobil: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobil: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobil: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

## ■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

## ■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

## ■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

## ■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

## ■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

## ■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

## ■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

• BENITO ISABEL	Bidekurutzeta 46, behea	☎ 76 52 62
-----------------	-------------------------	------------

## ■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
• OXIRONDO KONTSULTATEGIA	Boni Laskurain 2, behea	☎ 76 20 50

## ■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

## ■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

## ■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

## ■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39





MODELO BERRIAK  
Kalitate hobea preziorik onenean!!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU



Ibargarai, 11-13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 76 70 58



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK